

**EBAZPENA, 2016eko Otsailaren 17koa, Unibasqeko zuzendariarena, Julio Abalde Alonso jaunaren Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zientziaren arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko lehendakari eta kidea izendatzeari uko egitea onartzen dueña, María Vallet Regí andrea Zientziaren arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko lehendakari berria izendatzen duena, eta Joan Fibla Palazón Batzordeko kide berria izendatzen duena.**

Unibasq Agentziaren Estatutueta 19.6.b) artikuluan xedatutakoaren arabera (apirilaren 16ko 204/2013 Dekretuaren bidez onartutako estatutuak), Julio Abalde Alonso jaunak Zientziaren arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko lehendakari eta kidea izendatzeari (Aholku Batzordeak proposatuta eta Unibasqeko zuzendariaren 2015eko apirilaren 1eko ebazpenaren bidez argitaratuta) uko egin dionez, 204/2013 Dekretuaren 13.5.e) artikuluan esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki,

#### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Julio Abalde Alonso jaunaren Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zientziaren arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko lehendakari eta kidea izendatzeari uko egitea onartzea.

**Bigarrena.-** María Vallet Regí andrea Zientziaren arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko lehendakari berria izendatzea.

**Hirugarrena.-** Aholku Batzordeak proposatuta, Juan Fibla Palazón jauna Zientziaren arloko Titulazioen Ebaluazio Batzordeko kidea izendatzea.

Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016eko otsailaren 17an.

**EVA FERREIRA GARCIA**

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendaria